




Īleroko aldizkingi ederġafiduna

Aita Kaputxinoak zuzendua

:—:	VI Urtea	1924'ko	Epaiġa	63 Zenbakia	:—:
-----	----------	---------	--------	-------------	-----

Jose Deuna eriotza onaren zaitzalea

I



ERIOTZA...! Iltzea...! ġBai ote da gauza ikaragafiagorik ta ġafantzi (importantzi) aundiagodunik?

Mundu onera ġiġan guztiok, bat ere utzi gabe, il beafak gera, naiz aberats izan, naiz beafatsu, naiz jakintsu naiz ezjakin. Jaio baġo lenago, Jaungoikoak bizitzea eman zigun ta orduezkeroztik geroago ta eriotzerantz urbilduagoz goaz, itufitxoak ibai aundietara ta ibaiak itxasora bezela.

Itz oek idazten ari naizen au ta irakurtzen ari zeran irakurle maite ori, biok era ber-berean egunen batez ilko gera. Ez daiteke iġor ere atera eriotzaren atzapafetatik.

ġNolako miġak ta nolako naigabeak ta bilduf ġofiak gero eriotzako orduan! Arima (gogoa) ta gorputza orain luġean elkaf baturik ain ongi ta ain pozik bizi direla, gero egunen batez berezi beaf! ġorain elkaf ain maite-maite dutelarik bizi ta gero bata besteagandik aldendu beaf! Gutxitan ikusi det iġor iltzen; baina ikusi dedanetan bildufez ikaraz jafi naiz eta gogoa iġun ta begi biak malkoz bustiak gelditu zaizkit.

Il ondorean beġiz ġzer gertatuko da ta il diranak nora joango? Oben astunean (pekatu mortalean) ta Jaungoikoaren asafean il diranak betiko sulei-

zera (infernura), beti neke-oinazez ta Jaungoikoa bein ere ikusi gabe bizi bear duten toki artara; Jaungoikoaren maitasunean ta eskefean (grazia) il diranak befiz, beti-betiko zerura, mota guztietako poz ta atsegiñen artean, zoritxar ta min bat ere gabek, Jaungoikoa ezagun ta maitetuz bizi bear duten toki artara.

Ofa ba, bai dala gañantzi (inportanzi) andidun gauza eriotza! ¡Ondo il ezkeru, zorionekoak beti-betikotz; gaizki il ezkeroz ordea, beti-betikotz zorioneakoak!

II

Jose Deunak bai izan zuela eriotza ezti-gozo-biguña! Il bear zala ezagutu zuanean oeratu zan, bere maitasun ta itxaropen guztia Jaungoikoagan jafirik. Eskui aldean bere seme Jesus zuan eta ezker aldean Andre Maria. Jesus'ek eskuaz burua emeki irozo (sustengatu) egiten zion, eztiki ta maiteki itz egiñaz, jakingafi gauza azko adieraziz. Bitartean Andre Mariak pafiriz begiratzien zion ta ardurarik afetatsu ta maitetsuenaz lagundu.

Atsekabe bat bakafa zuan Jose Deunak iltzeko zorian zegoela: Jesus eta Maria Birjiñagandik berezi beafa. Baina zituan atsegin ta pozak afas samufagoak ta gozoagoak ziran. Idazle askok diotenez, il baino bederatzi egun lenagotik asi-ta, Jaungoikoak bialtzen zizkion Patriarka Deunari aingerutaldeak, biotza adoretu, alaitu ta atsegiñez bete-bete zezaioten. Gainera bazekian Jose Deunak, Jaungoikoak iragafita, il ondorean urte batzuetarako linbora joango zala eta Jesus'ek eriotza nekatsu-gogofez zeruko ate itxiak idiki egingo zituanean zerurako zala zeruko toki gorenen batera, antxe Jesus Beraren ta andre Mariaren ondoan, Santu guztien gainean beti-betikotz zorioneko izateko.


Oldozkun (pensamentu) pozgafi oek buruan zerabilzkiela il zan Jose Deuna, ezpainetan pafiria eta biotzean alaitasuna ta pakea zituelarik eta Jesus'ek Berak begiak itxi zizkion.


¡Au izan zan benetan eriotza ezti ta biguña! ¡Jesus eta Ama Birjiñaren ondoan il; eta iltzen zanean bertan jakin laster zeruratu bear zuala! Espiritu Santuarekin esan dezagun befiz: «Beati mortui qui in Domino moriuntur.» «Zorionekoak Jaunagan iltzen diran ilak.» (1) Eta: «Pretiosa in conspectu Domini mors sanctorum ejus.» «Edef-edefa Jaunaren begietan justuen eriotza.» (2)

III

Ordudanik da Jose Deuna *eriotza onaren zaitzalea*. Jaungoikoak beregain utzi dio eginpide ori, berearen antzeko eriotza on bat iritxi dizaion bera lufean goretsi ta maite izaten dutenei.

Jesus eta Maria mundu onetan Jose Deunaren mendean bizi izan ziran eta zeruan ere beti gertu daude Jose Deunaren esana egiteko. Ora zeñen egoki dion Teresa Deunak: «Maria ta Jesus lufean Jose'ren mendean bizi izan ziran bezela, era berean zeruan Jose'k nai duen guztia be-





Simeon Jesus aurarekin



tetzen dute. Eskatu dizkiodan ontarte guztiak lortu dizkit Patriarka Deun oreak. Afigafiak dira egin dizkidan mesedeak eta bizirik atera nau gorputz eta gogoko afiskuetaatik.» (1) Auxe ber-bera diote Bernardino eta beste Deun askok.

Zeruan bada Jesus'ek eta Andre Mariak Jose'ren naia beti betetzen dutenez geroz, zer nai izango ote du Patriarka efukitsu oreak gure eriotzako orduan guri laguntzea baino? Zer nai izango ote du, gu luf onetatik ateratzean, gu zerura eramatea baino? Badaki Jose Deunak zer dan eriotza, zer ta nolako nekeak ta esturak eraman bear diran une lafi aftan; ta ofegaitik lufean bera ospatu ta goretsi izan dutenei gogoz laguntzen die beti, berak izan zuen antzeko eriotza on ta paketsua izan dezaten.

Ofela sinistu izan dute beti kristau guztiak ere eta Jose Deunari deitu diote ao batez «eriotza onaren zaitzailea» eta beragana jo dute eriotza on-on baten eske.


Badakizu bada, irakufle maite oreak, eriotza on-on bat izateko ta Jaungoikoaren grazian iltzeko, zein dan bide efaza ta ziufa: Jose Deunaren mai-tale izatea. Egunoro zer edo zer ez ote dezakezu Jose Deunagatik egin? Efosarioa bukatu ondorean, zail izango ote zaitzu, gauza aundirik egin nai ezpadezu, Jose Deunaren izenean «Aita gure, Aguf Maria ta Gloria bat» esatea, eriotza ona izateko ontartea eskatuz?

Egizu ofela ta ez dezu damurik izango eriotzako orduan, Jose Deunaren bitartez zerua irabaziko dezu.

¡Guzti-guztiok ilko al gera eriotze zorioneko batez, gure ezpain ikaratiez «Jesus, Maria ta Jose» izan gozoak ebakiz!

Yure'tar Julian A. O. M. Cap.


(1) Vida cap. VI,



Jaungoikoaren 1.º Agindua; maitetasuna

*Hoc tantum diligentissime praecavete, ut diligatis
Dominum Deum vestrum. (Josue 23)*

Ardurarik aundienaz au beintzat begiratu, maitatu dezazuten zuen Jaungoiko Jauna.



SRAEL'ðarak Ejipto'tik atera-ta Jaunak agindutako lur aberatsean sartu arte, efi ofen gudari edo soldaduen agintari izan zan Josue. Onek bere azken egunak uferatzen (urbiltzen) zitzaizkiola ezagutzean efi guzia bildu erazi zuan bere ondorata itz auek esan zizkion beste asko gauzen artean: «ardurarik aundienaz au begiratu zazute beintzat, maitatu dezazuten zuen Jaungoiko Jauna.»

Auxe da Jaungoikoak bere lenengo aginduz siñismen eta itxoipen edo esperantzaren ondotik kristauari eskatzen diona. Siñismena ta itxoipen edo esperantza kristauaren biotzean maitasunaren sua biztutzeko suki edo egurak bezala dira. Siñismenak erakusten dio nolako ondasunduna dan Jaungoikoa ta itxoipen edo esperantzak ondasun oiek berari emango dizkiola uste izan-araziz, alako jaun ondasuntsu eskuzabala maitatzera eragiten dio.

¿Nolako maitetasuna zor diogu Jaungoikoari?

Galde oni erantzun baño len esan nai dizuet zer dan maitatzea ta zer gixezkoa izan diteken.

Maitatzea da norpaiti edo zerpaiti nai izatea. Aurak nai izaten diote beren gurasoei, mirabeak ere bai etxeko nagusi ta andreai askotan; oiek nai izan oi diote, beren ongile diralako, batzuek eta besteak gure ongile edozeñi gure esker onez erantzun beaŕean arkitzen gera-ta. Baño maitetasun guziok lufekoak dira ta lufeko gauzetaz sortuak askotan. Jaungoikoarekiko maitetasuna ere izan diteke gauza oiek beraz sortutakoa.

Jaungoikoa gure Egile dalako, Jaungoiko Semea gure Erosle ta ainbat nekeren ondoren alako eriotza eramana dalako maite ba'degu, maitetasun ori ona da. Baño maitetasun ori geren buruen onaz, guretzat Jaungoikoa ona dalako sortua da ta oraindik maitetasun ori ezta oberena. Maitetasun *gerekoa* da ori.

Maitatu dezakegu ordea norpait ez guretzat atsegingafi edo ongile ta ondasun emale dalakoz, baizik berez ona, zuzena, jakintsu, aberats, ongile, polit, eder, atsegingafi ta maitagafi dalako. Norpait, ofenbeste alderdi on dituen dalako aŕen onez poztutzen ba'gera ta oraindik, alako ura ikusi ere gabe, maitatzen ba'gendu, ori izango litzeke maitetasun garbiagoa. Ta Jaungoikoa ontasun uts-utsa ta zuzentasunaren eta jakinduriaren, aberastasun eta edertasunaren iturburua dalako aŕen onaz poztutzea da maitetasunik goienekoa ta oberena. Gure onez Jaungoikoak egiñaz azturik bezala, bere ontasun

oietaz ura maitatzea, ori da Jaungoikoari diogun maitetasuna.

Maitetasun oni *goimaitasuna* deitzen dio B. K. Ikasbideak, goitik, zerutik datorkigun maitetasuna dalako. Gizonak berez, bere argitasunez edo indafez sortu ezin duana dalako. Goimaitasun au da, Jaungoikoa berez ta gu ta gure lagun projimo (urkoak) argatik maitatzeko Jaungoikoak gure baiten ezafitako gogo ona.

Goimaitasun ori ¿beařezkoa al da zeruratzeko?

Bai, naita-naiezkoa edo ezinbestezkoa da zeruan sartzeko edozein gizonentzat. Pekatu lařian arkitzen den edozeñentzat ere naita-naiezkoa da bere egonera txafetik ateratzeko, eřpalu beintzat siñismenagatik bere bizia ematen edo bear dan sakramentua eřpalu artzen.

Aginduz bearturik dago nor-nai maitetasun ori agertzera Jaungoikogak nako zofaz oartzean, baita ere bizitzan noizean bein.

Baño eguneroko otoitz (orazioak) egiten dituzten kristauak orėkin betetzen dute siñismena, itxoipena edo esperantza ta goimaitasuna beřitzeko daukaten obligazio (eginkizuna).

Ustekabekoan ere norpait arkitu liteke maitetasun ori beřitu beařean. Ori gertatzen da esate baterako Jauna artu beařean edo beste bizien sakramentuen bat artu bear eta aitortzeko biderik gabe arkitzen denean.

Zer zion Jesus'ek maitetasun ontaz.

Fariseo batek Jesus'engana uřeraturik galdetu zion: ea zein zan agindu guzietan aufenekoa. Jesus'ek erantzun zion: Entzun, Israel, zure Jaungoiko Jauna, Jaungoiko bat da: eta zure Jaungoiko Jauna zure biotz osoz, zure gogo osoz, zure buru osoz eta zure al guzian maitatuko dezu. Au da lenengo agindua. (Marc. XII-29-30).

Buruz, gogoz, biotzez eta al guziakin edo beste Ebanjelari batek dion bezala, indar guziakin Jaungoikoa maitatzeak esan nai du gizona oso-osorik ari atsegin zaizkionetan ibiltzea. Ari atsegin zaizkionak bear ditu geroztik artu gogoan, erabili biotzean, izketetan eta eginkizunetan.

Auxe da Jesus'ek ziona: nere-aginduak (gogoan) dauzkena ta betetzen dituna, ori da ni maite nauena (Joan. XIV-21.) Edo kristau ikasbideak dienez: nork maitatzen du Jaungoikoa? Jaungoikoa maitatzen du aren aginduak betetzen dituanak.

¿Nork utsegiten du maitetasun ontan?

Maitetasun au austen du zuzen-zuzen txarkerizko *gorotoaz* Jaungoikoa begietan artzen duanak. Au da Jaungoikoa gaiztotzat artu ta Jaungoikoari gaizki nai izatea. Au, pekatu guzietan izan diteken aundiena da.

Ongabekerizko gorotoaz uts egiten da gañera, Jaungoikoaren ondasunen ezin eramana artzen ba'du norpaitek. Au da Jaungoikoak duan ondasun bat ez izatea nai lukenean; esate baterako, naiko ba'luke norpaitek Jaungoikoa guzi-jakiña ez izatea bere gaiztakeriak ez ikusteko, edo nai ba'luke Jaungoikoa zuzena ez izatea, bere gaiztakeriak ez zigortzeko. Gañera utsegiten du maitetasun onen kaltetan, goimaitasun ori beřitu bear lukenean beřitzen ez duanak.

Luŕean asi gaitezen alegin guziz maitatzen gure zoriona maitetasun ontazko bizitza betiko ondorean izan dedin, maite duanari Jesus'ek betiko bere ondoan tokia agintzen²dio-ta.

Intza'r Damaso An. O. M. Cap.

Galburu ta mats-mordoak

Zelai¹aldetik dator
Zidoŕean bafena
Maria Birjiñaren
Semetxo²apal, mena,
Egundaiño sortu dan
Umerik edefena.
Mats-mordo bat zekaŕen
Bere esku eskuiñean,
Gari-eskumentxo bat
Bere esku ezkeŕean.
Bidera³irten⁴zitzayon
Done Joan Batixta,
Zakaria'ren seme,
Bere kide laguna.
Gurutze-makila bat
Esku artean zeukan,
Bere soiñekotxoa
Ardi-lafuzkoa zan;
Jesus'i ots-egin ta
Iardun zion izketan:
—Nondik nora zabiltza,
Jesus kide yayoa?⁵—
—Zelayean izan naiz,
Orain etxera noa.—
—Gari ta mats oriek
Non dituzu atzeman?⁶—
—Galsoro jatoŕ bat da
Or goitiko mendiskan;
Garia zori dago,
Sorta au bildu det bertan.
Masti yori bat ere
Badago an ondoan;
Mordo eder bete au
Ebaki det ofetan.—
—Ta zer egin nai dezu
Gari ta mats oyezaz?⁷—
—Etxera naizenean

Eoko det garia,
Iriña oratu ta
Egingo ogi zuria.
Gero trinkatuko det
Alaber mats-mordoa
Ta artatik aterako
Ardo ezti gozoa.—
—Ta ogi-ardo oriek
Zertako nai dituzu?⁸—
—Ai! gauza aundi bat nai det
Oyen bidez burutu;
Orain diotsudan au
Ondo gogoan artu.
Urteak igaro ta
Bein gurutze-urkabean
Il ta zeruratzeko
Egongo naizenean,
Ogi au egingo det
Neronexen aragi,
Gizonei izan dakien
Gogoentzat janari.
Ardo au nere odol
Egingo det orobat
Ta gizonei emango
Gogoen edaritzat.
Gaiñera ogi-ardo
Auen irudipean
Estali-ta, mundua
Mundu dan bitartean
Bizirik iraungo det
Gizasemen artean:
Beren lagun ta azkuŕi
Izango naiz mendetan.—
Done Joane itz oyeke
Entzunaz samurtu zan,
Ta muin gozo bat zien
Gari ta matsai eman.





ve Regina cœlorum



Donostia'r J. And. Abak ereskidetua)

A - ve Re - gi - na coe - lo - rum A - ve Do - mi -



na An - ge - lo - rum: Sal - ve Ra - dix, sal - ve por - ta




Ex qua mun - do lux est or - ta

Gau - de Vir - go glo -



ri - o - sa, Su - per om - nes spe - ci - o - sa

Va - le o val -



de de - co - - ra, Et pro no - - bis Chri - stum e - xo - ra.



ANAI-AREBAK

EGUN batez Martin ta Ana bakafik zeuden etxean. Ta Martin'ek esan zion Ana'ri: «Atoř, goazen jateko zerbait bilatzera, betekada gozo bat egiteko.»

Ana'k erantzun zion: «Iñork ere ikusiko ez gaituen leku batera eramaten banauk, joango nauk irekin.»—«Bai ba, esan zuen Martin'ek, goazen esnegelara ta eřatilu bat bete burin iretsiko diñagu.»—Ana'k esan zuen: «Ez, or kalean eguř pitzatzen ari dan auzoko ořek ikusiko gaitik.»—«Atoř bada nerekin sukaldera, esan zuen Martin'ek; sukaldeko kutxan baden eltze bat ezti, an ogia sartu ta jango diñagu.»—Ana'k esan zuen: «Ezta ere; arako leyo ondoan eseri ta iruten ari dan emakume ařek ikusiko gaitik.»—«Orduan goazen kupeltegira sagafak jatera, esan zuen Martin'ek; gaua bañu ilunago zego ura ta an ez gaifin iñork ikusiko.»—Ana'k esan zuen: «Oi Martintxo laztana! an iñork ikusiko ezgaituela uste al dek benetan? Paretan bafna ta ilunean ere ikusten duen begi bat badala ez al dakik?»

Orduan Martin'ek izuturik esan zuen: «Zuzen ago, ařeba maitea, ta ařazoi dun; gizonen begik ikusten ezgaituen tokian ere ikusten gaifin Jainkoak; ořegatik eřtiñagu iñon ere gauza gaiztorik egingo.»


Ana poztu zan Martin'ek bere itzak onez artu zituelako ta irudi polit bat eman zion: Jainkoaren begia argi-izpiz inguratua ageri zan irudi artan ta azpian itz auek zeuden idatziak:

Auřa, gogoan iduki, Jauna
Non nai begira dagokizula.

(Christoph v. Schmid)


URTSUYA'K euskeratua





Izugarizko eriotzetik

ateratzen da «Iru Agur-Marien bidez»



XIKI txikitatik, amak barkatu egiten ziozkan Patxi-kori naikeri guziak. Negafakin ezin bigundu zuane-an amaren biotza, seme ura asten zan ostikoka, ařastaka eta kařaxiz, nai zuana amak eman arte.

Ederki ezagutzen zuan ama; onek uste bařo obe-ki. Ama semea bezin argia izatera, etzuten luzaro iraunen etxe artan aufaren naikeriak zakarzken gauza lotsagariak. Aita, salerosle gaitza, beti bidas-tian, noiz edo noiz bakafik etortzen zan etxera ta, etzuan ezagutzen deusere edo ongi beřepin etxe-ko bizikera.

Zazpi urtetan aufak ikastolara joan bear zuan; bařo zorigaiztoan, eřian eskola katolikorik etzan, erlijiorik gabekoak baizik. Irakaslea, maisua, Jaun-goikoaz edo Erlijioaz itzik egin orduko, kendu egi-ten zuten.

Ikastol aietako batean asi zan Patxiko. An, seta guzitako aufak baziran, eta au gure aufaren etorkizunerako txafa izan beař zuan. Maiz amak asko begiratzen zion; bařo aunitz alditan, ĉzer egin? 15 urtetan Erlijioako apur batzuk bakafik zazkin. ĉNola ikasi? Patxiko, noizpait bere amaren naiari ba-ietza emanaz, joan zan Erlijioso batzuk zuten ikastetxera. An asi zan salos-keta (komertzio) eta Erlijioa, biak batean ikasten. Lenengo urtetan ederki; bařo gero lagun asko bere aufetik zijuazela ezin eramanez, asi zan maltzur-kerikin; eta ongi ala ere, argia baizan. Irakasleen aolko edo konseju guziak alpefik izan ziran. Azkenean etxera bialdu zuten. Bařo lenago Irakasle-na-gusiak, bereganatuz, oso ziřez eta benetan itzegin zion. Agertu ziotzan ez-tiki eztiki, nolako etsayekin topatuko zan bizitzako bidean, eta nola, etsai eta ařisku guziei aurka edo kontra egiteko, otoitza zen biderik oberena, eta abar.

«Bařo, esaten dio, otoitza badakit nik zuk eztuzula beařezko gauzaz artuko; ofengatik eskatzen dizut, ĉafen! egin dezazula egunero otoitz eřax

bat bederik, au da, agindu zaidazu, maitea, *egunero Iru Agurmaria* esango ditiozula zure Zeruko Amari.»—«Bai», esanik, eta Aita nagusiaren onespenarekin (bendizioarekin), etxeratu zan.

Albert Zemp. (Jařaituko)

GEZUREZKO GURASOAK

Iruña'tik 1924'ko Otsaila'ren 2'an



ERE Joxe Mari laztana: Pozik artu nuen zuk emandako befia, ta pozikago joango nintzake zure etxera zu ezkontzen zeran egun aundi ortako, baña ori ez dezakedalako iñolaz, biotz biotzetik emango dizkizut eskatzen dizkidazun konsejuak.

Nolakoa izan bear duan emendik, auřera zure bizimoduak? Ongi dakizu noski, dotriñan ikasi ziñun bezela, zein aundiak diran gurasoen eginbeafak. Badakizu ez diozutela zuek begiratu bear zuen animei bakafik, baizikan zuen seme alabeen animai ere bai ta asko ala ere.

Negargafia da ikustea nola galtzen diran gaurko gazte asko, beren gurasoen eřu edo kulpaz nola nai ta nun nai dabiltzalako.

Baño ez da ori okeřena. Askotan guraso ber-berak dira beren seme alabak galtzen dituztenak.

Ona lengo egunean neronek ikusi ta entzun nuana. Iruña aldera nijoan, ta bidean emakume bat oraindik gaztea ta bere alabatxoa (15 urteko nexkatoa) arkitu nituen. Iya negafez esaten zion nexkatoak bere amari: «Ama, ni ez naiz geyago eskolara joango olako jantziakin; lotsatu egiten bainaiz asko, ta nere lagunak ere par egiten didate egunero. Nexkato ařen soñekoa motza zan ziñez, zanko guztiak agiri zeramazkin ixtafetaraño nexkato gaxoak. Baño ba aldakizu zer erantzun zion bere amak, nere Joxe Mari maitia?

Entzun ta ařitu zaitez: *ixilik zaude neska*, esan zion amak, *zuk ez didazu neri agindu bear, badakit nik zuk baño obeto zer egin bear detan, ta ilko zaitut beřiz esaten badidazu.*

¡Lotsagafia!, Joxe Mari, ¡lotsagafia! Olako gurasoak? ¡oyek ez dira gurasoak!

Nolako estutasuna oyena egunen batian beren seme alaben animak galduta guraso ta semeak inpernuan betiko arkitzen diranean! Zer esango dio alaba ořek bere amari?

Zer? ¡Ama madarikatua! zuk galdu dezu nere anima; zu etzera nere ama baizik nere animaren bořeroa. Ni gaizki neřilen ta zuk ez didazu itzik esan.

Bildur ematen dit, Joxe Mari maitea. Ez gero oyetakoa izan. Gaurtik egin zazu asmo sendoa, bestela damutuko zera. Izan zaitezte ba zorionekoak. Ori nai nuke nik. Agindu beti zure adixkide

Gabriel A'ri. O. M. Cap.

TOLOSA'KO ZABALTZEA

Gogo onekoak.—Ustegabeko gertaera.—Lanbidea.—Egunaria doan.—Lanola edo ofizinetan.

Egunaria doan.



ROGERIA bateko erakustoki edo eskaparean goiz batez itz auetxek ageftu ziran: *Egunaria (eguneroko periodikua) doan.* Erosle guziei bat doan ematen zitzaïen. Andik gutxira erosleak geitzen asi ziran ta oaf edo abisua onela aldaturik agertu zan: *Astean xueldo batez, egunaria.* Zerbait afitu egin ziran lenbizian. Baño dana dala zer da xueldo bat aste guztirako? Jendea ugari dijua ta Irakuŕgai onen batzordeak ezin ditu luzaroago egin aufera jafaitzeko bear diran diru-emateak. Ogei egun geroago oaf edo abisua befiz aldatzen da: *Astean bi xueldoz, egunaria.* Befiz ere afi-

tu. Baño *Dépêche* utzi zutelako ta *La Croix* atsegin izaten asi zitzaïelako ta astean bi xueldotan izan ta ere izan ziteken merkeena zalako askok af-tzen jafaitu zuten. Onelaxe betiko salgai uriko amairu drogerietan jafi zuten.

Lanola edo ofizinetan.

Baño etziran emen geratu langile gogatsu-bizkoŕak.

—Artu egunari (diario) pardel au (esaten diote siñismen ta ausardi aundiko andre bati) zuaz lanola edo ofizinetako ateetara ta andik irtetzen (ateratzen) diran langile guztiai doan eskeñi zaiezu.

Antxen dago andrea. Langileak irtetzen dira ta afiturik begiratzen diote.

—¿Zer da au? galdetzen diote.

—*La Croix* egunaria, jaunak. Nai duanarentzat doan (debalde).

—Apaizen egunaria!...

Ta gero pafiriren batzuk, itz zakaŕen bat, kiñuren bat. Eztu iñork ere af-tzen.


Biaramunean okeŕago. Itz txafak, paŕak, bultzadak ta txutik doi-doi daga, paper guziak bide ondoko efekara erortzen zaizkio. Langileak paŕ egin, baño andre gaixoa, negaf-malkotan batzorde edo komiteagana itzultzen da.

—Ez ikaratu, andrea: ondoren bikaña izateko bidean zaude, ekaitzari barealdiak ta eguzkiak jafaitzen bai-diate.

Biaramunian an, befiz. «*¡La Croix* jaunak; doan nai duanarentzat!»

Langileak zerbait afitu egiten dira andrearen ausardiaz ta batzuek aufferko egunean gertatuagatik efukitu egiten dira. Ta bat edo batek par ta iseka egiten duan bitartean, beste batzuk, egunaria 'aftu ta irakurtzen alde egiten dute.

Aste erdi bat bafu beaferzkoa da egunari geiago eramatea. Ogei egun geroago andreak esaten die: Nere jaunak zuentzako xueldo bat astean ezta



ezer ere ta neretzako ezta gutxi. Nai badezute oraindaño bezela egunero ekañiko dizutet astean xueldo batez. Geienak eskua sakelean saftu zuten.

Orain etzion iñork ere pañ egiten andreari, atsegiñez itz egiten zioten.

Ogei egun geroago andreak esan zien: Jaunak, astean bi xueldo eman ditzakezutela uste badezute, papera besterik ez dezute ordainduko eta oraindaño bezela geiago saneufi edo prezioa jaso gabe ekañiko dizutet. Astean bi xueldo eman ditezke zuen egunerokoa izateagatik. ¿Zer dira bi xueldo?


Eta alegia gutxi zan. Gañera langileai atsegin zitzairen. Eundik larogei ta amafek aftu zuten.

(Cultrera) *Arbelaitz O. M. Cap.*



Italia'ko Emakume Katolikoak

Bukaera



BI MAITASUNAK.

AZTEDIAK neskatxak oitura onaz, siñismen biziaz apaindu nai ditu ta batez ere Jesus ta bere Amarenganako maïtasunaz. Asko itzegiten zaie, beren biotzak berotu aŕen, Aldareko Sakramentuaz ta besteen buruak diranai batez ere esaten zaye, al ezkeru, Jauna egunero artzeko, beren mendekoak ori bera ikasi dezaten. Italia'ko Eukaristi-Batzaŕetara sail edeŕak bialdu ditu beti ta au naikoa ez balitzaio bezela Gaztediak izan ditu bere Eukaristi-Batzaŕak.

Gaŕiera Milan'en katolikoak daukaten ikastetxe nagusian Jauna agertuaren aŕean beti ta egunero egotea bere gain artu dufe Gaztediko neskatxak.

EGUN BAT AUKERATU DU

Gaztediak Ama-Birjiñari oso-osoa emateko. 1922'go Maïatzean beste egun bat aukeratu zan gotefki guztian Maria'ren elizen batera joan, Jauna artu ta danak bilduta Mariaz itzegiteko. Neskatxentzako iru bizitza egin ditu, Ines, Arco'tar Juana ta Viterbo'tar Rosa, Gaztediaren iru zaindari santuenak. Lan berdiña egin du bere lau edo bost izpaŕingi eta aldizkingiak obetu ta zabaltzeko.

GAZTEDIA TA SOÑEKO NABARMENAK.

Oso argi ikusten zan Gaztediaren indafa, Aita Santuak ori ezagutuaz Italia guztian zabaltzen ari ziran soñeko nabarmenen kontra zerbait egin bear zala adierazi zion. Gaztediak gai ortaz itzegiten zuan liburutxo bat ugari zabaldu zuen, bi miloi zabaldu ziran uri batean. 1920'ko Garagaŕiaren 20'g. eguna zan Gaztediak aukeratua Italia guztian azi ona botatzeko. Aŕefeko egunetan Gaztediko neskatx guztiai itzegin zitzaïen jantzi lotsagabeak utzi ta kristauari dagozkionak artu bear zituela erakutsiaz. Egun ori etoŕi zanean, goizetik Jaunartze ugariak egin ziran alde guztietan; len esandako liburutxoak kalez kale, tranbietan, trenetan, kafe etxe, teatro ta eliz ateetan zabaldu zituzten neskatxak; gaŕiera katedralen doŕetatik ta leku goi guztietatik milaka biali zituzten egaka liburutxoak. Atsaldean emakumezko batzar aundiak nun-nai ta jantzi nabarmenai beti gogor egiteko asmo sendoak. ¡Nork zenbatu egun artan Aita Santuari eldu zitzaizkion eskeintza ta asmo edeŕak!

GAZTEDIA TA MISIOAK.

XV'g. Benedicto zanak onela zion bein Gaztediaren buru zan Barelli neskatxari: «Ez al dezake Gaztediak misio bat bear diran misiolariakin bere gain artu? Nik nerea badet ta 50.000 fr. eman bear izan ditut, baño Gaztediari naikoa litzaioke 40.000 ematea.» Aita Santuaren naia Gaztediak jakin zuan ta berak uste zuen baño geiago eman zuen; neskatx katolikoak 142.000 fr. eman zituzten ta aŕezkeru bere gain dauka Txina'n Chensi-erdiko misioa.

Au da Italia'ko Emakumezkoen Gaztedi Katolikoa. Ez degu merezi dun aña itzegin, baño alā ere ikusi diteke nolakoak diran bere indařak ta zein edeřa dan 250.000 neskatx oyek Italia guzian egiten duten lana. Atzo mezara joateaz ere lotsatu egiten ziran Milan'go ikastetxe nagusiko 35 neskatxak; gaur 250.000 jai-ki dira Elizaren aldeztu or dabilta etsaiakin burukan, gaur birauen kontra, gero soñeko lotsagabien aurka, ufengoan izparingi gaiztoak ito naian, beti Aita Santuaren mendean ta berak adierazten dion lekuan.

TOLOSAR B. A.



AITA SANTUARENTZAT.—Beljika'ko izparlari edo periodista katolikoak urtero diru-bilketa egiten dute Aita Santuari emateko. Oitura au 1860'g. urtetik dakarte: 1879'gafenian utzi zuten, baño orain 25 urte beřiz jafaitu zioten. Urte beřian asi ta Pazko egunak bitartean biltzen dute. Ilbeltzaren 12'an bazeuzkaten 25.000 franco bilduta.

TXINA'N ERE MAITE DUTE.—Hong-Kong'go katolikoak Aita Santuari zer-bait eman nai izan diote ta beren gotzaiaren bitartez Txina'ko gisara egindako aldare eder bat bialdu diote. Misioen aldeztu ořenbeste lan egiten dun XI'g. Pio'k oso pozik artu du ta beretzat daukan elizatxoan jafi-erazi du aldarea. Bertan as-
kotan ematen omen du meza.

JESUS AURTZOAREN TERESA DOATSUA TXINA'N.—Aldarean Elizak jafi beřia dan Doatsu onek maitale asko ditu Txina'n. Yunnanfu'tik idatzi dutenez, aundia beraganako maitetasuna ango katolikoan artean. Lisieux'ko eliza bialdu diran ikurñi edo bandera tartean, Txina'koa agiri da, katoliko oyek erosi dutena.

PALESTINA'RA JUDAŘAK.—Guda ondoan judař edo judio asko joan dira Palestina'ra 35.524 joan omen dira 1919'go Jofailetik 1923'ko garagařileraño. 1919'g. urtean 2.618; 1920'gafenean 7.129; 1921'ean. 8.607; 1922'gafenean 9.286 ta 1923'gafengo lenengo sei ilabetetan 5.884. Geyenak langileak dira.

ARTZAI ONA ARKITU DU.—Ara zer dion Filipinas'ko misiolari batek: «Eřamu igandean Bagio'ra eldu nintzan. An ezagutu nuen Catlin Jauna, orain «arte misiolari protestantea. Pozez beterik zegoen egiazko siñismena arkitu dua-«lako. Gure misiolarien bizitza ta beren lanak biotzean ikutu diote ta katolikoa «egin da. Manila'ra joan da Jesus'en Lagundikoen ikastetxean irakaslari izate-«ko. Badira misiolari protestanteen artean oso onak ta bide onetik dijoazela «uste dutenak. Oietakoa zan Catlin Jauna. Besteai bezela oni ere misiolari ka-«tolikoen lanak begiak iriki dizkio. Bai ote da apaiz katolikorik, bear dun beze-«la izan da protestante egin danik?»

NORK EGIN DITU?—Bein batean, dio beste misiolari batek, inditar batek esan zidan:

—Aita, zu ikusi baño len, banekin Jaungoikoa badala.

—Nola? Nik uste nuen etzizuela iñork nere aurretik Jaungoikoaz itzezin da...

—Egia da, zure aurretik ez dit iñork Jaungoikoaz itzezin eta ala ere banekien Jaungoikoa badala.

—Baña nola zenekin?

—Egun batean, 14 edo 15 urte izango nitun, eizara atera nintzan. Udara zan ta eguna txit edefa. Zuaitz edefak apaintzen zuten zingira batera eldu nintzan. An ikusi nituen ur gañean ate asko elkarrekin jolasean: zeru goi urdiñean eguzkia ta an uruti mendien tontoñak. Geldik egon nintzan nere begiak asetu arte, aiiñ edefa zan eguna. Onela negoela ta bat-batean etofi zitzaidan burura galdera au: Nork egin du au dena? Guk ez; inglesak ere ez, gure antzeko gizonak direlako. Gizonak baño geiago dezakeana izan bear du. Ofegatik zuk erakutsi diguzunean: «Siñisten det Jaungoikoagan, Zeru-lufen Egilea...» bereala esan det: ara, banekien nik Norbait bazala.

ZERUTIK LAGUNTZA TA ARGIA.—Irlanda'ko senadore guziak ontzat eman dute batzar aŕean esateko otoitza. Efiko gizon batek egin du otoitz ori ta eliz-gizon katoliko ta protestanteai erakutsi zaie ontzat eman dezaten.

KATOLIKO BIKANĀ ZAN.—Joan dan urteko azken egunetan galdu zan, tximistak efeta diotenez, «Dixmude» izeneko aize-ontzia. Plessis jauna ontziaren burua zan ta katoliko bikaña. Etzan nolanaikoa bere siñismena ta egan ibili beaŕ etzueanean, egunero Jauna artzen omen zuan. Bere ama gaixo ikusirik, Lourdes'era oñez joateko itz eman zion Jaunari, sendatzen baldin bazan. Ama sendatu zan ta uŕengo egunean abiatu zan Lourdes'erontz ta amabi egunetan egin zuen bide luze ura, 600 kilometrokoa gutxi gora bera.

ELIZARA GUTXI, BAÑO ZINERA ASKO.—Latefi Elkartuetan (Estados Unidos) elizarako zaletasun gutxi erakusten dute. Igandero New-York'o 573 eliz protestantietan doi-doi biltzen omen dira 27.700 protestante, bi zine-etxetan baño izaten omen dira 14.100 ikusle. Washington'go 40 eliza protestantietan 7.000 bakaŕik biltzen dira jai egunetan, 40 antzoki edo teatroetan beŕiz 50.000 gutxienez. Ori bera gertatzen dala katolikoakin zioten batzuk, baño ezta egia. New-York uriko bost pafokietan biltzen dira igandero iya 40.000 katoliko. Washington'go pafoko batek dio katolikoak ere badituela beren jolasak, baño ez dituela ofegatik elizak uzten ta uri ontan ofenbeste antzoki izan aŕen, katoliko askoi ez die galerazten, igandean ikustaldi batzuk elizara egitea.

